

EUSKAL KIROL FEDERAKUNTZEN DIGITALIZAZIOARI BURUZKO AZTERLANA



2021EKO AZAROA

AURKIBIDEA

01	Sarrera	02-03
02	Metodologia.....	04
03	Emaitzak/Ondorioak:	
	- Web-orrialdea.....	05-08
	- Sare sozialak	09-12
	- Komunikazio tresnak	13-14
	- Datuen kudeaketa.....	15
	- Ekipamendu informatikoa.....	16
	- Telelana.....	17
	- Zibersegurtasuna.....	18-20
	- Digitalizazio estrategia.....	21
04	Emaitza orokorrak.....	22-25
05	Bibliografia.....	26

SARRERA



Digitalizazioa egungo behar bilakatu da, negozioen eta gizartearen bilakaera ahalbidetzen duena, eta, aldi berean, zerbitzuekin, pentsamolde digitalarekin eta plataforma digitalak erabiltzen dituen bezeroarentzako teknologiarekin lotuta dago.

Gaur egun, digitalizazioa ezinbesteko prozesua da enpresen iraunkortasunerako, egungo behar teknologikoetara ez egokitzeak desabantaila larriak ekar baititzake.

Testuinguru horretan, euskal kirol federazioen digitalizazio-egoera aztertuko dugu. Kirol federazioak irabazi-asmorik gabeko eta nortasun juridikoa duten erakunde pribatuak dira, eta kirolariak, teknikariak, epaileak, elkarteak eta beren lurralde eremuan kirol modalitate bera sustatzen edo praktikatzen duten beste kolektibo batzuk biltzen dituzte.

ETEei, industriari eta hezkuntzari buruzko hainbat azterlanek argi uzten dute esparru horietako egoera kirol-sektorekoa baino askoz ere aurreratuagoa dela oro har (zertxobait hobea da gimnasioen sektore pribatuan edo kirol zerbitzuak ematen dituzten administrazio publikoetan). Arlo horietan guztietan, digitalizazio estrategiak garatu dira administrazio publikoak bultzatuta, eta pandemiaren garaian kirol klub edo federazioak baino hobeto prestatuta iritsi dira.

Kirol Federazioen Batasunak 2021ean argitaratutako dokumentuan, "COVID-19aren krisiaren aurrean kirol-erakundeak berreskuratzeko neurriak" izenekoan, sektore horren digitalizazioaren egoeraz eta laguntza politikei ekiteko beharraz hitz egiten da. Zehazki, eta kirol sektorearen egoera horren adierazgarri gisa, honako hau azpimarratu dezakegu bertatik:

«Pertsona gehienek federazio eta klubetan egiten duten borondatezko dedikazioagatik oso prekarizatuta dagoen sektore batean, COVID-19aren krisia digitalizazioa baino lehenago iritsi da»

SARRERA



Argi dago kirolaren egoera larriagotu egin dela egungo osasun pandemiaren ondorioz, gabezia digital horiek eta kirol erakundeen baliabiderik eza agerian utzi baititu. Pandemia baino lehen prozesu digitalak beharrezkoak baziren, gaur egun ezinbestekoak dira.

Halaber, gaur egun oraindik ez dira planteatzen kirol sektorerako eraldaketa digitalerako estrategia globalak, Eusko Jaurlaritzaren 2025eko Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategiak berak ere ez baitu berariaz aipatzen kirol eremua.

Hala ere, beste leku batzuetan badira kirol esparruan eraldaketa digitala sustatzeari dagokionez aldaketa bat hasi dela adieraz dezaketen ekimen batzuk, eta interesgarria izan daiteke horiek aztertzea Euskadin laguntza politikak planteatzerako garaian. Adibide gisa dugu ADESP elkarteak (Espainiako kirol federazioak biltzen dituen Espainiako kirolaren elkarteak) eta CSD erakundeak bultzatutako ekimena Espainiako kirol federazioen eraldaketa digitala bultzatzeko. Planak bost ardatz garatzen ditu: kirolean datua erabiltzea bultzatzea, kudeaketa eredia eraldatzea, Espainiako kirolaren lehiakortasuna hobetzea, gaitasun digitalak eta komunikazio digitaleko estrategia.

Ilido horretatik jarraituz, ADESP eta CSD, kirolaren digitalizazioaren esparruan herrialde garatuenak zein diren eta zer teknologia mota erabiltzen ari diren identifikatzen lagunduko duen azterlan bat egiteko aukera ebaluatzen ari dira.

Laburbilduz, premiazkoa da epe laburrean kirolaren eraldaketa digitalerako estrategia bat ezartzea oro har, eta bereziki euskal federakuntzetan, kirolaren sektoreak digitalizazioaren norabidean aurrera egiteko abagunea izan dezan.

METODOLOGIA

Datuak 2021eko urriaren eta abenduaren bitartean bildu ziren. **Lehen fase** gisa, **48 euskal kirol federakuntzen webguneak** eta **sare sozialak** aztertu ziren.

Ondoren, **bigarren fasean**, elkarrizketa telematikoak, telefonikoak eta inprimakiak erabiliz, informazio zehatzagoa lortu zen webgune, online izapide, zerbitzu digital, erabilitako sare sozial, federazioaren barne-komunikazio, ekipamendu informatiko, telelana, zibersegurtasun politikak eta digitalizazio-estrategiari buruz.

Azpimarratzekoa litzateke bigarren fase honetan **ezin izan zela harremanetan jarri 6 kirol federaziorekin**; beraz, ez dago federazio horien alderdi batzuei buruzko informazio zehatzik.

Lortutako datu guztiekin, azterketaren **ondorio orokorrak** egin dira, baita **federakuntza bakoitzaren fitxa** zehatzak ere.


Azkenik, azterlan honetan, eraldaketa digitaleko prozesu batean dauden alderdi guztiak garrantziaren arabera baloratzen dituen **tresna** bat erabili da, etorkizunean egingo diren ekintzen emaitzak, bai bakarka bai orokorrean, neurtzen dituen adierazle bat ezartzeko xedez.



EMAITZAK: WEB-ORRIALDEA

Webgunea kirol federazioen digitalizazioaren oinarritzko elementua da, bai komunikazioaren arloan, bai izapide eta zerbitzu digitalen arloan.


Hasteko, lortutako datuen arabera, euskal kirol federazioen **% 89,6k web-orri bat du**, eta **% 10,4k ez** du federazioari buruzko informazioa emateko oinarritzko eta ezinbesteko tresna hori.



% 10,4 horrek **jarduera gutxiago** duten **5 federakuntzei** egiten die erreferentzia, (horietako bat taekwondo da, webgunea ez dute martxan akats tekniko baten erruz, baina web orrialde berri baten proiektu bat jarriko dute abian).

Era guztietako webguneak aurki ditzakegu, batzuk besteak baino aurreratuagoak eta osatuagoak. Oro har, harremanetarako informazioa, lehiaketa eta txapelketei buruzko albisteak, lurralde federazioen eta kirol klubien informazioa, modalitate bakoitzeko kirol instalazioei buruzko informazioa, Euskadiko selekzioei buruzko informazioa eta kirolarien historialari buruzko informazioa ematen dute. Hala ere, nabarmentzekoa da web-orria duten federazio horietatik, soilik **% 34,9k ematen duela Euskadiko selekzioei buruzko informazioa**, eta **% 20,9k** soilik islatzen duela beren **modalitateetarako kirol instalazioei** buruzko informazioa. Bestalde, **% 93k** bere webgunean **albisteak** erakusten ditu federatuak informatuta edukitzeko.

EMAITZAK: WEB-ORRIALDEA




Era berean, **oso garrantzitsua** da **webguneak eguneratuta** egotea, hau da, albisteak, partiden emaitzak, kirol ekitaldiak... azkenaldikoak izatea (gutxienez azken 8 hilabeteetan, aldatu izana). Horrek garbi erakusten du federazioa **egunean** dagoela, jendea informatuta mantentzeaz arduratzen dela eta kirol erakunde **aktiboa** dela.

Gainera, informazio eguneratua duen webgune bat lehenengo postuetan agertuko da bilaketetan, eta, beraz, **posizionatzen** lagunduko dio horrek.

Emaitzen arabera, web orrialde bat duten federazioetatik, % **90,7k orria eguneratzen** du, oso kopuru altuak, eta % **9,3k** soilik **jarduerarik gabe** mantentzen du. Federazioaren arabera, webgunea langileek, boluntario batek edo enpresa espezializatu batek kudeatzen eta eguneratzen du.

Eremu pribatuei dagokienez, nabarmentzekoa da federazioen ia erdiek, % **48,8k, gune pribatu bat duela web-orri berean**. Atal horiek federatuentzat, lurralde-federazioentzat, klubentzat, arbitroentzat edo kirol-teknikarientzat izan daitezke. Era berean, hainbat funtzio dituzte: **lizentzia digitala lortzea**, egindako **formakuntzetara sartzea**, **izena emandako lehiaketei buruzko informazioa** lortzea...




Halaber, federazio gehienek **Kirol Lizentziak** plataforma erabiltzen dute eremu pribatu gisa, eta beste batzuk Espainiako federazioen plataformen parte dira.


EMAITZAK: WEB-ORRIALDEA

Webguneetatik nabarmendu den beste kontzeptu bat **online izapideak** dira, digitalizazioan funtsezko prozesuak. Garrantzitsua da federakuntzek izapide guztiak telematikoki egin ahal izatea, hala nola, **federatuen lizentziak, lehiaketetako inskripzioak** eta **aktak**. Online izapideek erraztu eta azkartu egiten dute administrazio lana; izan ere, kirol erakundeek ez dute aurrez aurre joan behar kudeaketak egitera.

Federazio bakoitza aztertu ondoren, % **74,4k** **online izapideren bat egiten duela** ikusi dugu, eta laurden batek, hots % **25,6k**, **ez duela baliabide telematikorik erabiltzen** lizentziak, inskripzioak... izapidetzeko.



Kirol federazioen kopuru handi batek **Kirol Lizentziak** plataforma erabiltzen du federatuen lizentziak kudeatzeko, eta gainerakoek **plataforma propioak** edo kirol-modalitate bakoitzeko **Espainiako federazioaren plataforma** erabiltzen dituzte. Hala ere, **akten, zehapenen edo aseguru medikoen digitalizazioa ez dago hain zabalduta erakundeen artean.**





Bestalde, **denda birtualei** dagokienez, emaitzek oso ehuneko txikia islatzen dute, soilik % **4,2k baitu kirol ekipamendua saltzeko denda birtual bat**. Euskal Esku Pilotaren Federazioa eta Euskadiko Surf Federazioa dira online salmentako zerbitzu digital hau eskaintzen duten bakarrak.

EMAITZAK: WEB-ORRIALDEA


Web-orriarekin amaitzeko, kirol erakunde horiek eskaintzen dituzten zerbitzu digitalak aztertu dira. Zerbitzu horiek hiru ataletan banatu dira: **sarrerren salmenta, formakuntza telematikoa** eta **bestelakoak**.

Datuen arabera, % **6,3k** baino ez du **eskaintzen** ekitaldi edo lehiaketetarako **online sarrerren salmenta**.



% **12,5k** beste zerbitzu digital batzuk eskaintzen ditu, hala nola, entrenamenduak kudeatzeko programak, estropadak kudeatzekoak...


Azkenik, **formakuntza telematikoa** da federazioen artean gehien zabaldua dagoen zerbitzu digitala; izan ere, datuen arabera, ia erdiek, % **43,8k**, **online** ematen dituzte prestakuntzak. Horretarako, federazioek Zoom, Meet, Mudle, Classroom eta antzeko plataformak erabiltzen dituztela diote.



EMAITZAK: SARE SOZIALAK ETA ZUZENENKO EMANKIZUNAK



Sare sozialak, web-orriaren antzera kirol erakundearen **isla digitala** dira, eta, beraz, haren irudi korporatiboaren parte dira. **Ezinbesteko tresna** dira federazioari buruzko informazioa emateko, ikusleak eduki berri eta jarraituarekin entretenituta mantentzeko eta erakundeen kudeaketa ona islatzeko.

Lortutako estatistikei dagokienez, aztertutako **% 75k, gutxienez sare sozial bat** kudeatzen du. **Ehuneko handia** da, eta federazioetan lan egiten duten **langileen kopuruari erlazionatuta** dago. Langile gutxiko federakuntzen kasuan, sare sozialen kudeaketa alde batera utzi behar izaten da sareak kudeatzeko personal falta dela eta.





Hurrengo atalean, sare sozial bakoitzari buruzko grafikoak jasotzen dira, baita horien eguneratzeen inguruko datuak ere. Sare sozial bat **eguneratutzat** jo da, baldin eta **azken hilabetean edukia argitaratu** badu. Ezkerreko grafikoan sare sozialaren erabilera ageri da, eta eskuinekoan sarearen eguneratze maila.

Lehenengoa **Instagram** da, federazioen **% 39,6k** erabiltzen duen sarea. Bigarren grafikoak, Instagram erabiltzen dutenen artean **% 84,2k** mantentzen duela eguneratuta azaltzen du.





EMAITZAK: SARE SOZIALAK ETA ZUZENeko EMANKIZUNAK

Jarraian agertzen diren grafikoak **Facebooki** buruzkoak dira, kirol arloan nagusi den sarea hain zuzen ere. Aztertutako federazioen % **66,7k** sare sozial hori erabiltzen du. Sarerik zaharrena eta erabiliena da. Oso erakargarria da, erabiltzeko erraza, beste erabiltzaile batzuekin hitz egiteko baliagarria eta hainbat formatu ahalbidetzen ditu, hala nola bideoa, irudia edo testua. Sare horrek eguneratze maila txikiagoa du, federazioen % **65,6k** mantentzen baitu aktibo edukia.





Hurrengo grafikoak **Twitterri** buruzkoak dira. Sare horri dagokionez, kirol erakundeen % **43,8k** erabiltzen du, ikuspegi desberdina duelako eta komunikazio azkarrak eta eragin handikoak egiteko erraztasuna duelako. Eguneratzeari dagokionez, esan % **57,7k** sarea eguneratuta mantentzen duela.





Youtuberri dagokionez, inkestaturen % **31,3k** edukia igotzeko erabiltzen du, baina soilik, % **26,7k** eguneratzen du. Datu hori arestian aipatu bezala, denbora faltari edo eguneraketek arduratu daitekeen langileen faltari dagokio; hortik ehuneko txikiagoa izatea.

EMAITZAK: SARE SOZIALAK ETA ZUZENEKO EMANKIZUNAK




Azkenik, federakuntzen % **4,2k Flickr**-eko perfil bat erabiltzen du argazkiak partekatzeko. Dena den, sare hau ez da maiz eguneratzen, izan ere, soilik proba garrantzitsuren baten ondoren argitaratzen dituzte argazkiak.



Sare sozialetan dauden profil guztiak batera aztertuz gero, ikus dezakegu **Facebook** dela euskal federazioen artean hedatuena dagoen sare soziala, sare guztien % **36** baita.


Bestetik, gehien erabiltzen den bigarren sarea **Twitter** litzateke, profil guztien % **23,6**.



EMAITZAK: SARE SOZIALAK ETA ZUZENEKO EMANKIZUNAK

Jarraian, **Instagram** aurkitu dezakegu, espero baino ehuneko txikiagoarekin (% **21,3**), batez ere Twitterren antzeko joerak dituen sare sozial bat delako eta gazteen artean erabiliena delako.


Bestalde, kirol federazioek erabiltzen dituzten azken bi sare sozialak askoz ere ehuneko txikiagoan erabiltzen dira. Horrela, Youtubek profil guztien % **16,9** osatzen du eta **Flickr-ek** % **2,2** baino ez.



Streaming plataformetako ekitaldien emankizunari dagokionez, nabarmentzekoa da aztertutako federazioen % **25,5k** soilik gauzatzen duela horrelako zerbitzu digitala ikusleentzat. Horrek agerian uzten du % **66k** ez duela informazioaren komunikabide hori erabiltzen. **Gainerako ehunekoa (8.3%)** harremanetan jarri ezin izan diren federazioei dagokie.

EMAITZAK: KOMUNIKAZIO TRESNAK



Euskal federazioek federatuekin, lurralde federazioekin, kirol klubekin... duten **komunikazioa** ezinbesteko pieza da entitatearen garapenerako eta funtzionamendurako. Komunikazioa gauzatzeko **hainbat tresna** daude, eta bakoitzak **hainbat abantaila** eskaintzen ditu. Federazioek erabiltzen dituztenen artean, **korreo elektronikoa**, **aldizkari elektronikoa**, **telefonoa**, **WhatsApp** eta **Telegram** daude. Jarraian, kirol erakunde horien komunikazioari buruzko emaitzak agertzen dira.



Atal honetako grafiko guztietan, % 14,6k (Eg) informaziorik bildu ezin izan den federazioei egiten die erreferentzia.

Korreo elektronikotik hasita, federakuntzen % **83,3k erabiltzen du**. Federazioek bitarteko hori lurralde federazioekin, Espainiako federazioarekin eta kirol klubekin komunikatzeko erabiltzen dute. Informazio orokorra, zirkularrak, lizentziak... bidaltzeko erabiltzen da.



Azaldutako lehen tresnarekin batera, **aldizkari elektronikoan** erabilera aztertu da. E-maila ez bezala, % **4,2k** soilik erabiltzen du komunikabide gisa. Hipika eta surf federazioak dira newsletterak bidaltzen dituzten erakunde bakarrak.



WhatsApp aplikazioari dagokionez, kasuen % **56,3an** erabiltzen dela aipatu behar da. Tresna hori federazioaren **barneko zein kanpoko komunikaziorako** erabiltzen da.


EMAITZAK: KOMUNIKAZIO TRESNAK

Kasu honetan, zifrak antzekoak dira, % **54,2k telefonoa** erabiltzen baitu komunikabide gisa. Telefonoa da komunikatzeko tresna azkar eta erraz gisa erabiltzen da.




Azkenik, **Telegram** aurkitu dezakegu. Orain dela gutxi hasi da Negu Kiroletako Euskal Federakuntza tresna hori erabiltzen, hortik **%2,1**. Komunikazio bide hori proben, ordutegien eta emaitzen gaia federatuei jakinarazteko erabiltzen da.

Bildutako datuak batera aztertuta, **posta elektronikoa** da gehien erabiltzen den bitartekoa, guztiaren % **41,7** baita. Era berean, **WhatsApp** askok erabiltzen duten tresna da, eta % **28,1eko** erabilera du, ia **telefonoaren** antzera (% **27,1**). Azkenik, **aldizkari elektronikoak** eta **Telegram** dira gutxien erabiltzen diren bi tresnak, % **2,1** eta % **1** hurrenez hurren.



EMAITZAK: DATUEN KUDEAKETA



Kirol federazioak digitalizatzeko ezinbesteko beste faktore bat federatuen datuen kudeaketa da. Jarraian, euskal federazioek erabiltzen dituzten plataformak azaltzen dira.



Excel-arekin hasita, ikusi daiteke **% 19,1k** federatuen datu pertsonalak kudeatzeko erabiltzen duela aplikazio hori. Tresna erraza eta erabilerraza da.

Atal honetako grafiko guztietan, % 14,9k (Eg) informazioz bildu ezin izan den federazioei egiten die erreferentzia.

Excel-arekin gertatzen den bezala, **Access** plataforma ez da asko erabiltzen erakundeen artean, soilik **% 6,4k** erabiltzen baitu federatuen datuen kudeaketarako.




Azkenik, datuek erakusten dute kirol-federazioen **% 66k** nahiago duela **beste plataforma propio** batzuk erabili. Horien artean, **Kirol Lizentziak** plataforma da erabilienetako bat.

EMAITZAK: EKIPAMENDU INFORMATIKOA


Honako grafiko hauek kirol erakundeek duten **ekipamendu teknologikoari** buruzkoak dira. Horietan, gailu elektronikoak dituzten edo ez eta eguneratzea jasotzen dira.

Hasteko, aurreko ataletan bezala, % 14,6k erantzun ez duten federakuntzei dagokio.

Horretan oinarrituta, federazioen % **81,3k gailu bat du gutxienez**, hala nola mahaiko ordenagailuak, tabletak edo ordenagailu eramangarriak. Gainerako % **4,2k**, hau da, **baliabide gutxien** dituzten federazioek, **ez dute gailurik**.




Ekipamendua dutela dioten federazioen artean, % **82,1** egoera digital onean daude, eta **azkeneko eguneratzeak** eta funtzionaltasunak dituzte. Gainerako % **17,9ak ez du** gailu eguneraturik.



EMAITZAK: TELELANA


Gailendu nahiko genukeen hurrengo atala **telelana** litzateke, federakuntzek telelan sistema bat ezartzeak digitalizazioan eragina baitu. Aipatu behar da **Eg** akronimoa duen atalak informaziorik bildu ezin izan den federakuntzei egiten diela erreferentzia.



Pandemia garaian telelan sistema bat ezartzea ez da gizarteko beste sektore batzuetan bezain eraginkorra izan. Argi ikusi daiteke, soilik federazioen **% 39,6k duela telelan sistema** bat.


Aitzitik, neurri batean egokitu egin dira **bilera telematikoetara**, federazioen **% 72,9k baliabide telematikoak** erabili baititu bilerak egiteko.

Gainerako **% 12,5k ez** du horrelako bilerarik egin, segurtasun neurriekin aurrez aurre egin direlako edo bildu ez direlako..



EMAITZAK: ZIBERSEGURTASUN POLITIKAK


Zibersegurtasuneko politikak edo estrategiak gaur egun erakunde guztietan kontuan hartu behar diren **kontzeptu garrantzitsuak** dira. Funtsezkoa da kirol-federazioek **hainbat mekanismo izatea beren datuen babes bermatzeko**, are gehiago datu pertsonalak kudeatzen dituztela kontuan hartuta. Era berean, garrantzitsua da federazioko langileek nola jokatu behar duten eta zer erantzukizun dituzten kontuan hartzea erakundearen informazioa zaintzeko eta babesteko.



Birusen kontrako eta segurtasun perimetraleko lizentziekin hasita, % **77,1k** antivirusak erabiltzen ditu ekipo informatikoen segurtasuna bermatzeko. Hala ere, % **8,3k ez du babes** hori erabiltzen gailuetan.


Atal honetako grafiko guztietan, % 14,6k (Eg) informaziorik bildu ezin izan den federazioei egiten die erreferentzia.

Bestalde, **firewall-a instalatuta** duten federazioen kopurua % **70,8koa** da, antivirusen lizentziekin baino pixka bat txikiagoa. Halaber, **firewall-ik ez duen** % **14,6** horrek ezin du bermatu baimenik gabeko sarbideak blokeatuko dituen segurtasun sistematik.




EMAITZAK: ZIBERSEGURTASUN POLITIKAK

Grafiko honetan **lanpostuen sistema eragileen eguneratzeari** buruzko datuak ikus ditzakegu. Eraitzen araberak, federazioen erdiak baino gehiagok, % **54,2k**, **eguneratu egiten dituzuten sistemak**, eta % **31,3k ez**.




Garrantzitsua da sistemak eguneratuta edukitzea, funtzionamendu egokia eta errendimendu egokia bermatzeko eta softwarearen funtzionamendua eta segurtasuna hobetzeko.





Sistemak eguneratzea garrantzitsua izateaz gain, garrantzitsua da gailuen **pasahitzak aldatzea** segurtasuna handitzeko. Oraingoan, % **64,6k** eguneratu egiten dituzuten pasahitzak, eta % **20,8k** ez. Eguneratzeen maiztasuna aldatu egiten da federazio batetik bestera.

Babeskopien inguruan, % **75k** tokiko eta urruneko backupak egiten dituzte. Aitzitik, % **10,4k ez du segurtasun-kopiarik** egiten, eta, beraz, datuak galduz gero, fitxategien bigarren euskarriak ez izateko arriskua agertzen du.




EMAITZAK: ZIBERSEGURTASUN POLITIKAK

Zibersegurtasun politikekin jarraitzeko, hurrengo atala **ikuskaritzak** edo **auditoriak** lirateke. Federazioen % **41,7k auditoriak gauzatzen ditu**, eta % **43,8k, aldiz, ez**; beraz, hobetu beharreko alderdia da. Ikuskapen horiek aukera ematen dute sistemak hobetzeko eta federazioen zibersegurtasuna handitzeko, funtsezkoak baitira erakundearen funtzionamendua bermatzeko eta darabilten informazioaren osotasuna babesteko.



Horrez gain, federazioen % **47,9k** soilik jaso du **jardunbide egokiei buruzko prestakuntza**. Garrantzitsua da federazioko langileek arlo horretan prestakuntza jasotzea, datuen tratamendu egokia eta horien babesari bermatzeko.


Azkenik, atal honek **haririk gabeko sareen babesari** buruzko datuak erakusten ditu. % **64,6k** pasahitz batekin babesten ditu bere sareak, eta % **20,8k** ez.




EMAITZAK: DIGITALIZAZIO ESTRATEGIA

Azkenik, euskal federazioen **digitalizazio estrategien** azterketa egin dugu, aro digitalera egokitu ahal izateko eraldaketa bati ekiteko prest daudela erakusten duten estrategien inguruko azterketa, hain zuzen ere.

Datuek erakusten dutenez, federazioen % **60,4k ez du digitalizazio estrategiarik** esparru horretan aurrera egin ahal izateko. Federazioen % **22,9k soilik esan du estrategia digitala duela**.



Emaitza hori kirol erakundeen digitalizazioak azterlan honetan erakutsi duen egoeraren isla argia da. Eraldaketa digitalean aurrera egiteko planik edo estrategiarik ez izateak argi eta garbi erakusten du federazioek zailtasunak dituztela eremu horretan aurrera egiteko.



Egindako elkarrizketetatik ondoriozta dezakegu, federazioen eraldaketa digitalean aurrera egiteko oztopo nagusiak honako hauek direla: **baliabide ekonomiko falta** (% 35,6), gai honetan **prestakuntzarik eza** (% 25,4) eta **langile falta** (% 20,3), besteak beste.

Bestalde, federakuntzei beraien egungo digitalizazio mailaren autoebaluazioa eskatu zitzaizen, Otik 10era bitarteko eskalan. Federakuntzek beren entitateei ematen dioten puntuazioaren batez bestekoa **5,87** da.

Azkenik, elkarrizketatutako kirol federazio gehienek adierazi dute eraldaketa digitalean aurrera egin nahi dutela; dena den, badira tamaina txikiagoko batzuk, esparru honetan ekintzarik gauzatzeko beharrik ez dutela adierazi dutenak.

EMAITZA OROKORRAK

Azterketa honen emaitzetatik atera daitekeen ondorio orokorra da, **euskal kirol federakuntzen digitalizazio maila beste sektoreekin alderatuz txikiagoa dela**, hezkuntza, kultura edo merkataritzarekin esate baterako. Hala ere, Donostiako kirol klubuen azterketatik lortutako datuei erreparatuz, esan daiteke federazioek maila digital handiagoa islatzen dutela, eta, beraz, kirol sektorearen barruan, euskal kirol federazioak hein batean aurrerratuagoak daudela.

Federazio gehienek **oinarrizko alderdi digitalak** dituzte (web-orria, sare sozialak, zibersegurtasun alderdiak...), baina haien errendimendu digitala handiagoa izan daiteke.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da **% 22,9k soilik** adierazi duela bere entitatearen **digitalizazioan aurrera egiteko estrategia** edo planen bat duela.

WEB ORRIALDEA

Ikerketaren arabera, federazioen ehuneko handi batek (**% 89,6**) web orri bat du, eta, beraz, badute presentzia digitala izateko oinarrizko tresna. Gainerako kopurua, webgunerik ez duen **% 10,4**, jarduera txikieneko federazioei dagokie, eta hori oztopo nabarmena da digitalizazioan aurrera egiteko.

Baina kontua ez da web-orri bat izatea soilik, **komunikaziorako eta kirolariak erakartzeko** tresna gisa balio behar duelako eta horretarako, eguneratuta egon behar du. Ildo horretan, **% 90,7k web-orria eguneratu** du azken 8 hilabeteetan, eta horrek esan nahi du ia webgune guztiak aktibo daudela.

Web-orri horien funtzionaltasunei dagokienez, **gune pribatuak** aztertu ditugu; izan ere, atari horiek balio erantsi handia dute erakundearen digitalizazioan. Ere pribatuek aukera ematen dute federatuen datuak kudeatzeko, jardueretan izena emateko, prestakuntzetan izena emateko...

Kirol federazioen **% 48,8k** atari edo eremu pribaturen bat du federatuentzat, lurralde-federazioentzat, klubentzat, epaileentzat edo kirol-teknikarientzat. Oraindik ere alderdi horretan lan egin behar da, hainbat abantaila eskaintzen dituztelako eta erakundearen digitalizazio egoeran aurrerapauso bat suposatzen dutelako.

EMAITZA OROKORRAK

Bestalde, **online izapideei** dagokienez, federazioen % **74,4k** web orriaren bidez online izapideren bat egiteko aukera du, eremu pribatu horien barruan zein beste plataforma batzuetan. Ehuneko horren gehiengoa **lehiaketetako lizentzien edo inskripzioen online kudeaketari** dagokio; hala ere, komenigarria litzateke beste online izapide batzuen digitalizazioan aurrera egitea, bereziki aktekin, zehapenekin edo kirol-aseguruekin lotutakoetan.

Halaber, interesgarria izan liteke Kirol Lizentziak aplikazioaren antzeko bat izatea, kirol-federazioei alderdi horien digitalizazioan aurrera egiten laguntzeko.

Denda birtualei dagokienez, federazioen kopuru oso txikiak eskaintzen du online salmenta, % **4,2k** hain zuzen ere.

Azkenik, federazioek eskaintzen dituzten **zerbitzu digitalen** barruan, **prestakuntza telematikoa** da ehunekorik altuena duen alderdia, % **43,8k** online ematen baitituzte formakuntzak.

SARE SOZIALAK ETA ZUZENeko EMANKIZUNAK

Federakuntzek sare sozialak nola erabiltzen dituzten aztertuta, ikusten da % 75k, gutxienez, profil bat duela sare sozialen batean.

Lehenik eta behin, sare erabiliena **Facebook** da (% 66,7), ondoren **Twitter** (% 43,8) eta Instagram (% **39,6**). Erabilera mailari dagokionez, Instagram da gehien eguneratzen dena (% **84,2**) ondoren Facebook (% **65,6**) eta Twitter (% **57,7**).

Lehiaketan **zuzeneko emankizunei** dagokionez, aipatu federazioen % **25k** soilik erabiltzen dituela streaming plataformak zerbitzu digital hori emateko. Alderdi hau gehiago landu beharko litzateke, izan ere, ekintza txiki horiek markatzen dute maila digitalean federazioen arteko aldea.

ONDORIO OROKORRAK

KOMUNIKAZIO TRESNAK

Federazioek beren federatuekin, lurralde federazioekin eta kirol klubekin komunikatzeko gehien erabiltzen duten bitartekoa **e-maila litzateke** (% **83,3k** erabiltzen du) eta ondoren **WhatsApp-a** (% **56,3**). Horrez gain, ehuneko txikian agertzen dira aldizkari elektronikoak, %4,2k erabiltzen baitu, beraz, interesgarria litzateke tresna horien erabilera indartzea.

DATUEN KUDEAKETA

Federatuen datuen kudeaketa da kirol erakunde baten digitalizazio prozesuan kontuan hartu beharreko beste faktore garrantzitsu bat. Federazioen % **66k** plataforma propioak erabiltzen ditu federatuen lizentziak kudeatzeko, kudeaketa mota horretarako plataforma espezifikoak baitira.

EKIPAMENDU INFORMATIKOA

Ekipamendu teknologikoari dagokionez, esan daiteke, oro har bat datorrela azterketaren emaitzeekin, eta gehienak eguneratuta daudela; beraz, kirol erakunde gehienek baliabide informatikoak dituzte digitalizazioan aurrera egiteko.

Federazioen % **80k** baino gehiagok gailu elektronikoak dituzte, eta % **82,1** eguneratuta dago.

TELELANA

Nabarmenezkoa da, kezkarria dela kirol federazioen erdiek baino gutxiagok jakin dutela modu eraginkorren egokitzen pandemia garaian **telelan neurriak** ezarri.

Dena den, egia da federazioen % **73k** baliabide telematikoen bidez egin dituela batzarrak Covid-19k iraun duen bitartean; hala ere, interesgarria litzateke telelanari buruzko neurriak ezartzea, teknologia dagoeneko ezarrita baitago eguneroko bizitzan.

EMAITZA OROKORRAK

ZIBERSEGURTASUNA

Azkenik, **zibersegurtasun politiken** azterketak erakusten digu % **77,1k** antibirus-lizentziak dituela eta % **70,8k firewall**-ak. Bi elementu horiek funtsezkoak dira gailuak babesteko eta, beraz, horietan biltegitratzen eta kudeatzen diren datu pertsonalen babesa bermatzeko.

Era berean, datuek erakusten dute erakundeen erdiek soilik, % **54,2k**, eguneratzen dituztela lanpostuen sistema eragileak, eta % **64,6k**, berriz, pasahitzak. Hala ere, datu hori apur bat handiagoa da babeskopiei dagokienez, % **75** urruneko eta tokiko backupak egiteaz arduratzen baitira.

Informazioaren segurtasuna eta osotasuna bermatzen duten auditoriei dagokienez, % **41,7k** soilik egiten ditu urtero horrelako berrikuspenak, eta beraz, argi dago alderdi hau hobetu behar dela. Gauza bera gertatzen da hurrengo kontzeptuarekin, federazioen % **47,9k** soilik jaso baitu **jardunbide egokiei buruzko prestakuntza**. Hala ere, hori gertatzen da zenbait kasutan federazioak enpresa espezializatu baten esku uzten duelako zibersegurtasun politiken kudeaketa.

Azkenik, % **64,6k** dio haririk gabeko sareen babesa bermatzen duela.

FEDERAKUNTZEN BALORAZIOAK

Federazio gehienek uste dute digitalizazio egoera baxuan daudela (batez besteko balorazioa **5,87koa** da 10etik), eta, gai horretan aurrera egiteko interes handia erakusten badute ere, adierazi dute **baliabide ekonomiko falta, denbora falta, prestakuntza falta edo langile falta direla aurre egin beharreko oztopo nagusiak**.

AZTERKETA OROKORRA

Azkenik, azterlan honetan, eraldaketa digitaleko prozesu batean dauden alderdi guztiak garrantziaren arabera baloratzen dituen tresna bat erabili da, etorkizunean egingo diren ekintzen emaitzak, bai bakarka bai orokorrean, neurtzen dituen adierazle bat ezartzeko xedez. Tresna erabiliz, ateratzen den batez bestekoak adierazten digu euskal kirol federazioen digitalizazio maila % **60,22koa** dela.

BIBLIOGRAFIA

- COVID-19aren krisiaren aurrean kirol erakundeak berreskuratzeko neurriak:

<http://www.fga.es/wp-content/uploads/2020/04/PLAN-MARSHALL.pdf>

- Euskadiren eraldaketa digitalerako estrategia 2025:

https://bideoak2.euskadi.eus/2021/03/30/news_67948/ETDE2025_Estrategia_ES.pdf

- Gizarte Digitala Espainian 2020-2021:

<https://www.fundaciontelefonica.com/cultura-digital/publicaciones/sociedad-digital-en-espana-2020-2021/730/>

- Mikroenpresen heldutasun digitalari buruzko azterketa Espainian eta Europan:

<https://es.godaddy.com/blog/observatorio-digitalizacion-2021/>

- Euskal hezkuntza sektorearen eraldaketa digitalerako planaren zirriborroa:

https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_gubernamental/09_planest_xiileg/es_def/adjuntos/borrador-plan.pdf

